

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANA

**Ekonomiaren Garapen eta
Azpiegitura Saila.**

2018-2021





AURKIBIDEA

Aurkezpena	2
Hitzaurrea	3
1. Gobernu Programa	7
2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana	14
3. Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren plangintza estrategikoa	22
3.1. Diagnostikoaren datu garrantzitsuak	22
3.1.1. Gobernu ona	22
3.1.2. Esku hartzeko ildoak	30
3.2. Helburu estrategikoak	37
4. Plana kudeatzeko sistema	40
4.1. Berdintasunerako urteko plangintza	40
4.2. Berdintasunerako egiturak	42
4.3. Jarraipen-sistema	43
4.4. Komunikazio-sistema	46
4.5. Aurrekontu-sistema	48
ERANSKINAK:	
• Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren eta sailari atxikitako erakundeen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako bi urteko Plangintza (2018-2019)	



AURKEZPENA

Berdintasunerako planak funtsezko tresna dira arlo horretan esku-hartze publikoa koordinatua, koherentea, efizientea eta eraginkorra izateko.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak benetako konpromiso politikoa du emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde, eta konpromiso hori agiri honetan azaltzen da, helburu horretarako aurrekontu-, giza- eta teknika-baliabideak jarrita. Horrez gain, era koordinatu eta arduratsuan egingo da lan erakunde guztiekin, emakume eta gizonen arteko berdintasunak aurrera egin dezan.

Azken finean, plangintza hori bat etorri behar da Eusko Jaurlaritzaren gardentasun-politikarekin, eta, horrenbestez, informazioa eman nahi zaie herritarrei, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak zer konpromiso hartu duen emakume eta gizonen arteko berdintasun-politikak ezartzeko.



SARRERA

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako Plana esparru-dokumentu bat da, eta bertan jasotzen da sail honek, berdintasun-politikari dagokionez, zer esku-hartze ildo eta gidalerro bultzatuko duen bere eskumen-alorrean, XI. legegaldian.

Agiri edo dokumentu honekin, Sailak erantzuna ematen dio *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen* aginduari, hau xedatu baitu aipatutako 15.2. artikuluan:

⇒ – *Aurreko paragrafoan aipatutako plan orokorraren jarraibideak eta gidalerroak garatzeari dagokionez, **Eusko Jaurlaritzaren sail bakoitzak bere planak edo jarduketa-programak egingo ditu.***

Plan hori EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana da, eta Gobernu Kontseiluak 2018ko ekainaren 19an onartu zuen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 15.1 artikulua betez.

⇒ . – *Legegintzaldi bakoitzean, Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onetsi behar du. Plan horretan, hain zuzen, euskal herri-aginteei emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak orientatzeko jarraibideak eta gidalerroak modu koordinatu eta orokorrean jasoko dira. Plan hori egiteko orduan, euskal herri-administrazio enparauei parte hartzeko aukera eman behar die Eusko Jaurlaritzak.*

Plan honek bi desberdintasun dauzka aurrekoei dagokienez. Lehenengo aldiz, dokumentu hau lantzeko orduan, kontuan hartu da oinarri-agiri edo matriz bat, Berdintasunerako Sailen arteko Lantaldearen lanaren eta adostasunaren emaitza dena. Eta sailean eta zuzendaritzetan zentratzen da; aurrekoek, ordea, sailari atxikitako erakundeak ere hartzen zituzten kontuan.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak bezala, badu planari begirada feminista gehitzeko asmoa, eta erakutsi nahi du lotura dagoela berdintasunerako planen, legegaldiko konpromisoen eta gobernuaren eta sailaren konpromisoa duten bestelako planen eta agenden artean.

AURREKARIAK

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako Planak 3 plan izan zituen aurretik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorrekoak.

SAILAREN BERTINTASUN-PLANAK	INDARRALDIA
⇒ Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Berdintasunerako I. Plana.	2005- 2009
⇒ Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Berdintasunerako II. Plana.	2009- 2012
⇒ Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailaren Berdintasunerako III. Plana.	2012- 2016

DOKUMENTUAREN EGITURA

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Plan honek eduki hauek ditu:

- Zer konpromiso adskribatu zaizkion Sailari Euskadiko 2020ko gobernu-programan eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean.
- Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailak zer lehentasun duen berdintasun-gaietan XI. legegaldian.
- Diagnostikoa: Gobernu Onarena eta sailaren eskumeneko sektoreetan emakumeek eta gizonek duten egoerarena.
- Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren berdintasun-helburu estrategikoak.
- Berdintasun-plana kudeatzeko sistema
- Eranskinak: Sailaren eta atxikitako erakunde publikoen bi urteko plangintzak.

ELABORAZIO PROZESUA

Berdintasunerako plana egiteko, honako hauek hartu dira kontuan: sailak berdintasun-politikak ezartzen egin duen ibilbidearen azterketa eta ebaluazioa, Gobernu Onaren alorraren diagnostikoa eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren eskumen-alorreko genero-arrakala nagusien diagnostikoa.

Harrezkero, prozesu parte-hartzaile politikoari ekin zio, sailburuordetzek euren sektoreetan duten genero-lehentasunak definitzeko. Abiapuntuak hauek izan dira: Euskadiko 2020ko gobernu-programan sailari atxiki zaizkion konpromisoak eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren proposamenak.

Berdintasun-planaren zirriborroaren kontrastea: maila teknikoan, zuzendaritzen ordezkariak saileko lantaldean; maila politikoan, saileko zuzendariak.

Esandako partaidetza-prozesua ekainean hasi zen eta irailean amaitu. Hain zuzen ere, honako zati hauek izan ditu:

LANAREN FASEAK	DATAK
⇒ Zirriborroa egitea	2018ko eka-abuz.
⇒ Kontraste teknikoa	2018ko iraila.
⇒ Kontraste politikoa	
⇒ Emakunderi helaraztea, planari buruzko txostena eman eta proposamenak txertatzeko	2018ko iraila.
⇒ Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren berdintasun-plana onartzea	2019ko otsaila

ESKUMEN-EGITURA

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailari honako funtzio eta jarduketak alor hauek dagozkio: berrikuntza eta teknologia, enpresen nazioartekotzea, industria- eta energia-politika, informazioaren eta jakintzaren gizartea, lehen mailako sektorea eta elikadura-sektorea eta landa-, kostalde- eta baso-garapenerako politikak; nekazaritza- eta ozeanografia-ikerketa, trenbideak, bide-sarea, garraioak eta aireportuak eta portuak.

Honako alor hauek landuko dira:



1 GOBERNU-PROGRAMA

[Eusko Jaurlaritzaren XI. Legealdirako Gobernu Programak](#) 4 zutabe, 15 helburu estrategiko, 10 ardatz, 175 konpromiso eta 650 ekimen biltzen ditu. Helburu estrategikoen artean dago hau: “Euskadi Europako lehenengo 4 herrien artean jartzea genero-berdintasunean”. Europar Batasuneko Berdintasun Indizea EAEn 69,3 puntukoa da 1etik 100erako eskala batean; hori horrela, puntuazioa hobea lortu zuen 2010ean baino (68,8 puntu) eta 2012an baino (69,1 puntu).

Jarraian, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailari dagozkion konpromisoak eta ekimenak xehatuko ditugu, Gobernu Programan bildutakoak.

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILAK XI. LEGEALDIRAKO DITUEN KONPROMISOAK ETA EKIMENAK

12

“Basque Industry 4.0” Euskal industriaren aldeko plan integrala.

1. ekimena. Euskadiko 2017-2020 Industrializazio Plana egin eta ezarri. Berrikuntza, fabrikazio adimentsuan aitzindari izatea eta industrian zerbitzu aurreratuak txertatzea ditu ardatz, eta industria-sektorea euskal BPGd-aren % 25 izatera heltzea du helburu.

13

ETEEi lagundu eta zailtasunak dituzten enpresak berregituratu.

1. ekimena. Euskal enpresa txiki eta ertainek inbertsio produktiboan eta finantzaketan dituzten beharrei laguntzeko finantzabide eta abal publikoak bultzatu.
2. ekimena. “Bideratu” programa sendotu, zailtasunak dituzten enpresak berregituratzeko tresna gisa.
3. ekimena. Partaidetzako maileguak indartu Luzaro EFCren bidez, hartara inbertsioak finantzatu, finantza-arloa indartu eta nazioartekotzeko prozesuak garatu ahal izateko.
4. ekimena. Zailtasunak dituzten enpresei banakako soluzioak eman, tartean diren eragile guztiekin koordinatuta jardunez.
5. ekimena. Ekipamendu industrialean inbertsioa eta berrikuntza sustatu, *Renove Maquinaria* Programaren bidez.
6. ekimena. Inbertsio teknologikoak bultzatu: Gauzatu programa eta Arrisku Kapitala.



14 Proiektu industrial estrategikoak garatu

- 1. ekimena.** Proiektu industrial estrategikoak garatzea eta enpresak handitzea bultzatu, bide-erakusle diren sektore eta jardueretan.
- 2. ekimena.** 250 milioi arteko funts publiko-pribatu bat bultzatu, teknologian eta nazioartekotzen gaitasuna duten euskal enpresen hazkunde eta sustraitzea bermatzeko.
- 3. ekimena.** Kluster politika sustatu gure enpresa-sarearen lotura gisa, sektore bereko enpresen artean lankidetzari handiagoa sor dadin.

15 Ekintzailtzari lagundu

- 1. ekimena.** Foru-aldundiekin elkarlanean, Ekintzailtzaren Euskal Sistema sustatu, gizartean ekintzailtzaren kultura aktibatze eta atzerriko talentu ekintzailea erakartzeko –batez ere gazteen artean–, hartara Euskadi ekintzaileen lurraldea izan dadin.
- 2. ekimena.** Ekintzaileei Laguntzeko 2017-2020 Plana egin eta ezarri. Neurri fiskalak eta pizgarri ekonomikoak bilduko ditu, bai eta "leihatila bakarra" sortzea ere, enpresak sortzeko izapideak sinplifikatzeaz arduratze, ekintzaile izateko ekintza eta aholkularitza-zerbitzu guztien berri emateko, eta gazteen ekintzailtzari, emakume ekintzaileei eta autonomoei arreta eta laguntza berezia emateko.

16 Ikerketa, berrikuntza eta teknologiaren aldeko apustua

- 1. ekimena.** "RIS 3 Euskadi" espezializazio adimentsuaren estrategia garatu. Gutxienez bost urteko ziklo batez, aurrekontu publikoa urtean % 5 igotzeko konpromisoa hartu da, I+G+b-ren inbertsio publiko-pribatua suspertzeko.
- 2. ekimena.** Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2020 ezarri, Euskadik Europako eskualde berritzaile gisa duen toki indartzeko, eta I+G+b-ren inbertsio publiko-pribatua % 3rantz gerturatze.
- 3. ekimena.** 100 ikerketa-proiektu estrategiko garatu, Euskadi aitzindari izan dadin lehentasun-estrategikoko ikerketa-proiektuetan (esaterako, fabrikazio aurreratuaren, energiaren eta biozientzia/osasunaren arloan).
- 4. ekimena.** Talentuaren balioa azpimarratu, eta giza kapitalaren garapena bermatu. Horretarako, gazte ikerlariak euskal produkzio-sarean sartzeko plan berezi bat egingo da, elkarlanean jardunez enpresekin, unibertsitateekin eta zientzia eta teknologiko euskal sarearen eragileekin.
- 5. ekimena.** Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren bikaintasuna hobetu.
- 6. ekimena.** Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistema irekitzea eta nazioartekotzea sustatu.
- 7. ekimena.** Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistema integratu bakar batean bildu berrikuntza enpresaria, berrikuntza publikoa eta berrikuntza soziala.
- 8. ekimena.** Patenteak sustatzeko euskal estrategia garatu.



17	Berrikuntza ez-teknologikoa eta enpresa-kudeaketa aurreratua garatu.
1. ekimena. Kudeaketa Aurreratuaren eredua zabaltu euskal enpresen artean, lehiakorragoak izan daitezzen. 2. ekimena. “Innobideak” estrategia garatu, produktuak eta merkatuak dibertsifikatzera bideratutako berrikuntza ez-teknologikoa ezartzeko (Innobideak lehiabide), kudeaketa berritzeko (Innobideak kudeabide), eta pertsonetan oinarritutako antolaketa-ereduak sustatzeko (Innobideak pertsonak).	
18	Euskadi Europako erreferente bihurtu Elektronikaren, Informazioaren eta Komunikazioaren
1. ekimena. Euskadiko 2020ko Agenda digitala ezarri, Euskadin behar bezala sustatzeko Informazioaren eta Jakintzaren Gizartea, eta, betiere, teknologiek lehiakortasuna, ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko ematen dituzten aukerak balia daitezzen lagunduz. 2. ekimena. Industria adimentsua bultzatu, Basque Industry 4.0 Programa ezarrita. 3. ekimena. Fabrikazio aurreratuko talde pilotutik ateratako ekimen estrategikoak ezarri: 4.0 Plataforma. 4. ekimena. Banda-zabal ultra-azkarra zabaltu Euskal Autonomia Erkidego osoan; batik bat, jarduera ekonomikoa garatzen den eremuetan eta eremu periferikoetan. 5. ekimena. Zibersegurtasuneko euskal zentroa sortu eta euskal enpresetan zibersegurtasuna sartzea sustatu, kudeaketa berritzeko oinarritzko ondorio gisa.	
19	Energia-politika lehiakorra eta jasangarria.
1. ekimena. Gasaren alde apustu egin, energia berriztagarrien hedapen handiagorako trantsizioko energia gisa, eta gasaren eta elektrizitatearen hornikuntzan Europarekiko interkonexio energetikoa sustatu, baliabideen erabilera maximizatuz. 2. ekimena. Euskadiko 2030eko Energia Estrategia sektoreka garatu, energia berriztagarriak sustatzeko berariazko planak eginez: Euskadiko Plan Eolikoa / Biomasa Plana / Plan Fotovoltaikoa / Plan Geotermikoa / Itsas Energien Plana.	
20	Egoera ahuleko eskualdeetan eta udalerrietan jarduteko berariazko planak.
1. ekimena. Foru-aldundiekin eta egoera horretan dauden udalerrieekin elkarlanean, programa integralak aktibatuko dira, egiturazko aldaketa handiak izaten ari diren eremuetan edo Europar Batasunaren Eskualde Laguntzen Mapak (DAR) jasotzen dituen krisi larriak jasaten ari direnetan jarduteko. 2. ekimena. Halaber, foru-aldundiekin eta egoera horretan dauden udalerrieekin elkarlanean, tokiko eta eskualdeko garapen-planak bultzatuko dira, ekonomiaren eta gizartearen dinamizazioa bultzatzeko indize sozioekonomiko larrienak dituzten udalerrietan, EAEren batez bestekoa baino langabezia tasa nabarmen handiagoak jasaten dituzten udalerrietan, altzairuaren krisiak bereziki eragindako udalerrietan edo, puntako enpresak itxi edo lekualdatu dituztelako, enplegu galera handiak pairatu dituzten udalerrietan. Eremu horietan, era intentsiboan egingo da lan, Sprilur eta Indartu Programaren bidez.	

25	Enpresak nazioartekotzeko bultzada, “Basque Country” Estrategiaren parte
1. ekimena. Enpresak Nazioartekotzeko 2017-2020 Plana ezarri, “Basque Country” Nazioartekotzeko Euskal Estrategiaren testuinguruan, Basque Consortium-Nazioarteko Euskal Partzuergoa indartuta. 2. ekimena. Spri-ren kanpo-sarea indartu, lehentasunezko herrialdeetan zabaltzen jarraituz. 3. ekimena. Nazioartekotzeko estrategiak ebaluatu, aztertu eta zehazteko Adimen Lehiakorreko Unitatea sortu. 4. ekimena. Euskal enpresari nazioartekotzeko eta aukera ekonomikoak bilatzeko laguntza eman. BC Lizitazio Plataforma sortu. 5. ekimena. Enpresen esportazio-jarduerari laguntzeko programak indartu. 6. ekimena. Giza kapitala prestatu eta trebatu, Nazioartekotzeko Bekak eta Global Training Bekak ematen jarraituta. 7. ekimena. “Invest in Basque Country” estrategia indartu, atzerriko enpresak Euskadira lotzeko eta erakartzeko tresna gisa. 8. ekimena. “Basque Country” marka sustatu, euskal enpresak kanpoan hobeto kokatuta egon daitezen.	
26	Euskadiko lehen sektorea garatu.
1. ekimena. Nekazaritza-sektoreari laguntza integrala emateko Planaren edukiak gauzatu (Landa Garatzeko Osoa Programa, 2015-2020), sektore hori lehiakorragoa eta jasangarriagoa izan dadin, eta, hala, balioetsi eta gizartera dadin. 2. ekimena. Landa Ingurunearen Garapeneko apirilaren 8ko 10/1998 Legea aldatzeko lege-proiektua izapidetu eta onartu. 3. ekimena. Landako eta kostako eremuak azpiegitura eta zerbitzu egokiz hornitu, hiri-ingurune bizi-baldintza bertsuak bermatzeko modukoak eta populazioari eutsiko zaiola ziurtatzeko modukoak. 4. ekimena. Elikaduraren sektorean, basogintzan eta arrantzan ekintzailatza bultzatu, eta bertako nekazaritza-elikagaiak eta baso-produktuak merkaturatzea sustatu. 5. ekimena. “Sendotu” finantza-erreminta zabaldu, nekazaritza, basogintza, arrantza, elikagaigintza eta landa-garapeneko ekintzetan inbertsio-proiektuak garatzea bultzatzeko xedez. 6. ekimena. Lehen sektorea gaztetu, etorkizuneko bermea izan dezan; horretarako, Nekazari Gazteentzako Gaztenek 2020 Plana ezarriko dugu, eta gazteak arrantza-sektorean sartzeko “Itsasoratu” ekimena. 7. ekimena. Azpisektore guztien lehiakortasuna hobetzeko berrikuntza- eta ikerketa-estrategia integral bat bultzatu: nekazaritza, arrantza, basogintza eta abeltzaintza azpisektoreena. 8. ekimena. Sasoikako Lanaren Arretarako IV. Plan Integrala (2017-2021) egin. 9. ekimena. Nekazaritza Ekologikoaren Plana aurrera eraman, nekazaritza ekologikoa eta bere industria eraldatzailea garatzeko laguntza gisa. 10. ekimena. Egurraren sektorea egituratu Euskadin, osoa, lehiakorra eta teknologikoki aurreratua, eta European eredugarri izango dena. 11. ekimena. Euskadiko Arrantza eta Akuikulturako 2020 Plana garatu. 12. ekimena. Arrantzako Erakunde Ordaintzailea eratu.	

27	Nekazaritzako elikagaiak eta jarduera sustatu
1. ekimena. Gastronomia- eta elikadura-plan bat ezartzea, elikagai-kate osoa, euskal produktuen eta gastronomiaren berrikuntza eta kalitateagatik, nazioarteko erreferente bihurtzeko xedez. 2. ekimena. Euskal elikagaiak merkaturatzeko, zabaltzeko eta haien inguruan sentsibilizatzeko estrategia integrala garatu. 3. ekimena. Eusko Label eta jatorri-deiturak dituzten produktuen araudiak egokitu. 4. ekimena. Elikagaigintza-enpresen nazioartekotzea sustatu.	
33	Garraio publikoa eta intermodalitatea sustatu
1. ekimena. Garraio Jasangarriaren Gida Plana: Euskadi 2030 egin eta ezarri. 2. ekimena. Intermodalitatea bultzatu. 3. ekimena. Mugikortasun Elektroaren Plan Integrala egin eta ezarri.	
34	Mugikortasun Iraunkorraren Estrategia.
1. ekimena. Mugikortasun Jasangarriaren Legearen proiektua	
35	Txartel bakarra
1. ekimena. Tarifa-integrazioko eta txartel bakarreko sistema ezarri.	
36	Euskadiko Garraio Agintaritzaren barruan, garraio agintaritzak koordinatuta jardutea.
1. ekimena. Euskadiko Garraio Agintaritzaren legea aldatu 2. ekimena. Ponentzia berriak sortzea EGAn	
37	Euskadi, korapilo logistikoa. Euskal Y amaitu.
1. ekimena. Euskadik Iberiar Penintsularen eta Europaren artean Ardatz Atlantikoaren lotune izateko duen kokagunea indartu, Euskal Y azpiegitura amaituz eta hiriburuetan eta Irunen izango duen hiri-integrazioari konponbidea emanez, • AHT Donostian Atotxako geltokiraino sartuta. • AHT Bilbon Abandoko geltokiraino sartuta; hala, desagertu egingo da gaur egun lur gainean dagoen burdinbide multzoa. • Gasteizen burdinbidea lurpera eramanda, hiriak gunee berriak irabaz ditzan. • Irunen, mugan dagoela kontuan hartuta, lurpean geltoki berri bat eraikita, 2011ko martxoan Estatuarekin izenpetutako protokoloaren arabera. 2. ekimena. "Basque Country Logistics" lankidetza publiko-pribatuaren eredua bultzatu, plataforma logistiko eta intermodal berriak garatzeko: Jundiz-Foronda, Lezo eta Arasur. 3. ekimena. Euskal hirien artean tren-autobideak bultzatu eta "intercity zerbitzuak" garatu.	



38

Trenbideko garraioa hobetu.

1. **ekimena.** Renferen eta Feveren aldirietako lineen transferentzia eskatu.
2. **ekimena.** Euskotren sarearen hiri-integrazioa hobetu hirietan, dagokien udalekin kasuan kasuko hitzarmenak eginez.
3. **ekimena.** Donostialdeko metroa eraikitzen jarraitu, Donostiako alderik aldekoa eraikiz eta Loiolako Erriberako aldageltoki berria bukatuz.
4. **ekimena.** Gasteizko tranbia Unibertsitatera eta Salburura luzatu, eta gero Zabalgana auzora.
5. **ekimena.** Bilboko tranbia luzatu (Zabalburu-Plaza Biribila), tranbia-eraztuna osatzeko helburua betetzen jarraitzeko.
6. **ekimena.** Bilboko metroaren 3. linea guztiz amaitu, eta 4. eta 5. linea aztertzen jarraitu.
7. **ekimena.** Loiuko aireportuarekin bat egiteko tren bidezko lotura diseinatu.

39

Jarduera integral eta koordinatua portu eta aireportuetan.

1. **ekimena.** Aireportu arloan egiteke dagoen transferentzia eskatu, Loiu, Foronda eta Hondarribiko aireportuen kudeaketa-eredu koordinatu eta osagarria ezartzeko.
2. **ekimena.** Bilboko eta Pasaiaiko portuen kudeaketaren transferentzia eskatu, kudeaketa deszentralizatu bat garatzeko eta zentro logistiko intermodalekin dituzten konexioak optimizatzeko.
3. **ekimena.** Euskadiko Portuen Legearen proiektua onartu.
4. **ekimena.** Instalazioak egokitzea eta portuetako azpiegiturak eta kudeaketa hobetzea.

40

Nafarroa eta Akitaniarekiko interkonexioa hobetu.

1. **ekimena.** Mugaz gaindiko garraio-politikak garatu; eskualdeetako agintariekin lankidetzaz izatea bultzatuko da, zerbitzu-eskaintza optimizatzeko xedez.



Honako taula honetan XI. Legealdirako Gobernu Programan berdintasuna sustatzeko agertutako beste konpromisoa eta ekimen batzuk jasotzen dira, zeinak ez dagozkie Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren eskumenei, nahiz eta sailaren onespena izan.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO GOBERNU-PROGRAMAKO KONPROMISOAK ETA EKIMENAK	
55	Gizarte-erantzukizuna zaindu kontratazio publikoan.
55.1	Kontratazio publikoko prozesuetan klausula sozialak txertatu, Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legean xedatutakoaren arabera.
145	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatu, funtsezko zutabea baita garapen
145.1	Balioak aldatzea bultzatu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko.
146	Lan-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatu.
146.1	Enpresetan, organizazioetan eta eragile sozialetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatu, berdintasun-programen bidez, Euskadi genero-berdintasunari dagokionez Europako lehenengo lau herrialdeen artean kokatzea lortu arte.
146.2	Neurri ekonomikoak eta sozialak sustatu, ordainsariei dagokienez berdintasunean aurrera egiteko, enpresetan soldata-igardentasuna sustatzeko eta soldata-diskriminazioari aurre egiteko.
146.3	Bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lan-bizitza bateragarriak egitea bultzatu.



2 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VII. PLANA

[Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak](#) modu koordinatuan eta orokorrean jasotzen ditu euskal agintari publikoek 2018-2021 aldian berdintasunaren alorreko jardunean esku hartzeko lerroak eta irizpideak; hori dela eta, [XI. Legealdirako Gobernu Programako](#) konpromisoekin lerrotatuta dago. Plana Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak prestatu du, erakunde publiko eta gizarte-eragile guztiekin parte hartuta; era berean, plana prestatzeko oinarritzkoa izan da EAEko emakumeen eta feministen elkarten eta berdintasun-teknikarien partaidetza ere.

Berdintasunerako VII. Planak legezko agindu bati erantzuten dio; hain zuzen ere, [Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen](#) 15. artikulua ezarritakoari. Era berean, Legeak xedatzen du jarraibide eta gidalerro horiek garatzean, **Eusko Jaurlaritzako sailek berdintasunaren arloan jarduteko planak eta programak egin eta onetsiko beharko dituztela.**

Alde horretatik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren xedea botere publikoak gidatzea da, **zertarako eta** bizitzaren arlo guztietan emakumeen eta emetasunaren mendekotasuna mantentzen eta justifikatzen duten balioak aldatzeko; balio horiek gizonak ere mugatzen dituzte, nahiz eta oraindik botere-egoeran egon, patriarkatuak haien bizitzak ere baldintzatzen baititu, unibertsala da eta.

Balio aldaketa hori ezinbestekoa da giza garapen jasangarriarako, eta berekin dakar hainbat balio berri sortzea eta finkatzea, androzentrismoaz, sexismoaz eta matxismoaz zeharkatuta egongo ez direnak; aitzitik, emakumeen eta gizonen berdintasuna, emakumeen giza eskubideak eta herritarren sustapena garatzea eta txertatzea ahalbidetzen duten printzipio filosofiko, etiko eta politikoek zeharkatuko dituzte.

VII. planean ezarritako **printzipioek** adierazten dute zer ikuspegi estrategikok inspiratu eta orientatzen dituzten VII. planeko helburu eta jarduerak; **bermeek**, berriz, haien operatibitatea eta inpaktua ziurtatzea bilatzen dute.

XEDEA PRINTZPIO GIDARIAK ETA BERMEAK

XEDEA

- Balioak aldatzea

PRINTZPIO GIDARIAK

- Paradigma feminista
- Genero-ikuspegia
- Intersektionalitatea
- Emakumeen ahalduntzea
- Giza garapen jasagarria

BERMEAK:

- Konpromiso politikoa
- Aurrekontu eta giza baliabideak eta baliabide teknikoak
- Gardentasuna eta kontuak ematea
- Emakumeen eta herritarren parte-hartzea eta solaskidetza
- Erakundearen erantzukidetasuna eta lankidetzatza

Planak esku hartzeko eremu bi batzen ditu; Gobernu Ona, hau da, administrazioaren antolakuntza eta funtzionamenduaren aldaketak; eta Esku hartzeko Ardatzak (hiru), zeinaren helburua gizarte bidezkoago eta berdinzaleagoa lortzeko bidean.

EMAK. ETA GIZ. BERTINTASUNERAKO VII. PLANA

GOBERNU ONA

GOBERNU ONA

Berdintasuna txertatzea euskal botere publikoen antolaketan eta funtzionamenduan eta konpromiso politikoa esplizitu egitea.

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

Emakumeen ahalduntzea babestea maila pertsonalean zein kolektiboan, sozialean eta politikoan.

ESKU-HARTZE ARDATZAK

EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO

Politika ekonomikoak eta sozialak konektatzea, ekonomia sendoagoak eta gizarte jasagarri eta berdinoak sortzen laguntzeko.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK

Indarkeria prebenitzea, bizirik jarraitzen duten biktimak artatzea eta haiek izandako kaltea konpontzea.

Gobernu Onaren alde egiteko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak neurri batzuk proposatzen ditu honako bost programa hauetan antolatuta:

Gobernu Onerako programak eta neurriak ¹		
I. PROGRAMA: KONPROMISO POLITIKOA.	GO 2 Berdintasun-politikak garatzeko aurrekontua handitzea.	GO2.1 Berdintasunerako berariazko aurrekontuak dituzten erakunde publikoen kopurua handitzea. GO2.2 Berdintasunera bideratutako aurrekontua handitu duten erakunde publikoen kopurua handitzea.
	GO 3 Berdintasunerako plangintza eta haren ebaluazioa areagotzea eta hobetzea.	GO3.4 Berdintasunerako plangintza-prozesuak hobetzea. GO3.5 Erakunde publikoek egindako berdintasun-planen ezarpen-, jarraipen- eta ebaluazio-prozesuak hobetzea. GO3.6 Berdintasunaren arloko kudeaketa publikoan kontuak ematea sustatzea, politiken ebaluazioaren emaitzetatik abiatuta.
	GO 4. Berdintasunerako organo eta unitate administratiboak sortzea eta indartzea.	GO4.4 Berdintasuneko teknikarien egoera eta maila profesionala hobetzea. GO4.5 Posizio organiko egokia eta beharrezko aurrekontuko zuzkidura duten berdintasunerako unitateen kopurua handitzea.
II. PROGRAMA: BERDINTASUNERAKO TREBAKUNTZA.	GO5 Erakunde publikoetako langile guztiak prestatzea, baita politikariak ere.	GO5.1 Beren prestakuntza-planetan berdintasunerako prestakuntza txertatzen duten erakunde publikoen kopurua handitzea. GO5.2 Jarduera politiko eta teknikora egokitutako berdintasunerako prestakuntza-ibilbideak diseinatzeko dituzten erakunde publikoen kopurua handitzea. GO5.3 Berdintasunera berariaz bideratzen ez diren baina genero-ikuspegia txertatzen duten prestakuntza-jardueren ehunekoa handitzea.
III. PROGRAMA: GENERO-IKUSPEGIA LAN-PROZEDURETAN.	BG.6. Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.	GO6.1 Azterlan eta estatistiketan sexu aldagaia zeharka sartzen duten euskal erakunde publikoen kopurua handitzea. GO6.2 Azterlan eta estatistiketan sexu aldagaia zeharka sartzen duten euskal erakunde publikoen kopurua handitzea. GO6.3 Emakumearen egoerari buruz eta/edo berdintasunaren arloan ikuspegi intersektionala duten berariazko azterlanen kopurua handitzea.
	GO.8 Komunikazioan berdintasuna txertatzea.	GO8.1 Hizkera ez-sexista erabiltzen duten EAEko aldiakari ofizialekin argitaratutako dokumentuen ehunekoa handitzea. GO8.2 Hizkuntzaren eta gainerako komunikazio-elementuen erabilera ez-sexista egiten duten euskal herri-administrazioen webguneetako edukien kopurua handitzea. GO8.3 Euskal erakunde publikoek erabiltzen eta berdintasunaren arloko lorpenak agerian jartzen dituzten komunikazio-euskarrien (memoriak, webguneak...) erabilera handitzea. GO8.4 Erakunde publikoek onartutako berdintasunaren arloko oinarritzako dokumentuak guztientzako eskuragarri jartzea.
	GO.9. Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea.	GO9.2 Generoaren arabera eraginari buruzko alde aurreko ebaluazioa duten arauen ehunekoa handitzea. GO9.3 Berdintasuna sustatzeko neurriak dituzten arauen ehunekoa handitzea.
	GO 10 Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea.	GO10.1 Aurrekontuak berdintasunaren duen eraginaren aurretiko balorazioa egiten duten herri-administrazioen kopurua handitzea. GO10.2 Genero-ikuspegia aurrekontuetan txertatzeko jarduerak egiten ari diren herri-administrazioen kopurua handitzea.
	GO 11 Genero-ikuspegia sartzea plan sektorialetan eta transbertsaletan.	GO11.1 Beren diseinu-, kudeaketa- eta ebaluazio-prozesuetan genero-ikuspegia kontuan hartzen duten sektorekako eta zeharkako planen ehunekoa handitzea. GO11.2 Berdintasunerako unitate edo eragile batek osatu eta ezarri dituen sektorekako edo zeharkako planen kopurua handitzea.
	GO.12. Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea.	GO12.1 Kontratu eta/edo dirulaguntzetan berdintasunerako klausulak txertatzen dituzten eta betetzen diren ala ez kontrolatzen duten erakunde publikoen kopurua handitzea. GO12.2 Berdintasunerako klausulak txertatzen dituzten kontratuen ehunekoa handitzea. GO12.3 Berdintasunerako klausulak txertatzen dituzten dirulaguntzen, hitzarmenen eta beken ehunekoa handitzea.
IV. PROGRAMA: KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA.	GO.13 Berdintasunerako koordinazioa eta elkarlana indartzea.	GO13.3 Berdintasunerako sailarteko koordinazio-egitura duten Eusko Jaurlaritzako sailen eta horretan parte hartzen duten arloen kopurua handitzea.

¹ Kolore honetan nabarmentzen dira **legealdirako zer lehentasun** ezarri dituen Emakundek, bai eta gobernu onerako berdintasun-teknikak ere



V. PROGRAMA: PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA.	GO 14 Emakumeek eta gizonen zuzendaritza-organo eta/edo kide anitzeko organoetan ordezkaritza orekatua izatea bermatzea.	GO14.1 Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua duten kide anitzeko zuzendaritza-organoen ehunekoa handitzea. GO14.2 Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua duten epaimahaien edo antzeko organoen ehunekoa handitzea. GO14.3 Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua duten hautaketa-epaimahaien ehunekoa handitzea.
	GO 15 Kontsultarako eta parte hartzeko guneetan genero-ikuspegia sartzea.	GO15.1 Berdintasunerako herritarren partaidetzako batzorde edo organo bat duten herri-erakundeak gehitzea. GO15.2 Herritarrek parte hartzeko batzordeak eta organoak, beren osieran eta beren funtzio eta helburuen artean berdintasuna txertatzen dutenak, gehitzea. GO15.3 Emakumeek politika publikoetan parte hartzeko batzordeen, organoen, plataformen eta beste modu berrien eragina handitzea.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak Gobernu Onaren lehentasun hauek aukeratu ditu XI. legealdirako:

- Erakunde publikoetako langile guztiak prestatzea, baita politikariak ere. (GO5)
- Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea: (GO9)
- Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea. (GO10)
- Genero-ikuspegia txertatzea sektorekako eta zeharkako planetan (GO11)

Esku-hartzeko ardatzen programak eta helburuak

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako VII. Planak esku-hartzeko ardatzetan proposatutako ekimenen erantzukizuna esleitzen die Eusko Jaurlaritzako sailei, euren eskumenak direla-eta ekimenok gara ditzaketenean.

I. ARDATZA: Emakumeak ahalduentzeko programak eta helburuak²

1. PROGRAMA: EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONAL ETA KOLEKTIBORAKO LAGUNTZA.	1.1. Giza garapen jasangarriko emakumeek eta feminismoak duten zereginaren onarpena sustatzea.	1.1.1 Berdintasunaren arloko gizarte-aurrerapenean emakumeek eta feminismoak egindako ekarpenen agerikotasuna eta onarpena handitzea.
	1.4. Baliabideak hobetzea, halako moldez non emakume guztien askotariko egoerek, esperientziek eta premiek beren aldaketan eragin dezaten, bereziki desberdinkeria handienak dituzten baliabideetan.	1.4.1 Generoaren araberrako eten digitalak murriztea, teknologia berriak erabiltzen dituzten emakumeen kopurua handituz; bereziki, nagusien artean eta horretarako zailtasunak dituzten taldeen artean. 1.4.2 Garraio eta ekipamendu publikoaren estaldurarekin pozik dauden emakumeen kopurua handitzea, bereziki landa-ingurunean, talde- eta behar-aniztasuna aintzat hartuta.
2. PROGRAMA: EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIAL ETA POLITIKORAKO LAGUNTZA.	2.2. Emakumeek gizartearen parte har dezaten sustatzea, eremu eta gune guztietan.	2.2.3 Gizarte-, sindikatu-, enpresa- eta politika-erakundeetan parte hartzen duten emakumeen kopurua handitzea. 2.2.4 Gizarte- eta politika-arloan parte hartzen duten emakumeen kopurua handitzea, parte hartzeko formula eta/edo gune berrien bidez.
	2.3. Erabaki- eta zuzendaritza-eremuetan emakumeen presentzia eta eragina handitzea.	2.3.1 Emakumeen presentzia indartzea ordezkari eta/edo ardura politiko publikoko postuetan. 2.3.2 Sektore pribatuko enpresetako erabaki alorretan eta zuzendaritza postuetan dauden emakumeen kopurua handitzea. 2.3.3 Elkarte-mugimenduko, irabazi asmorik gabeko erakundeetako –kulturararen, kirolaren eta aisialdiaren arlokoak barne–, erakunde politikoetako, sindikatu etako eta enpresa-erakundeetako erabaki postuetan eta guneetan dauden emakumeen kopurua handitzea. 2.3.4 Erabakiak hartzeko postuetan emakumeen eragina handitzera bideratutako babes- eta trebakuntza-programak ugaritzea.

² Erakunde guztien eskumeneoak diren helburuak nabarmentzen dira, baita Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren eskumen espezifikoak diren helburuak ere.

II. ARDATZA: Eskubideak bermatu ahal izateko ekonomiak eta gizarte-antolamendua eraldatzeko programak eta helburuak

3. PROGRAMA: BERDINTASUNA GIZARTEA ETA EKONOMIA ERALDATZEKO BEHARREZKO BALIOA DELA AITORTZEA	3.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gizarte-balioa dela onartzeko laguntza ematea	3.1.1 Berdintasuna eta gizarte-aurrerapena lotzen dituzten pertsonen kopurua handitzea. 3.1.2 Emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria gizarte-arazo garrantzitsutzat hartzen duten pertsonen kopurua handitzea.
4. PROGRAMA: EMAKUMEEN AUTONOMIA EKONOMIKOA.	3.3. Antolaketaren eta enpresaren kultura berdintasunaren alde kokatzea	3.3.1. Kultura eta enpresa-praktikak berdintasunerantz aldatzeko ikuspegia txertatzen duten berdintasun-planak dituzten erakunde publiko, gizarte-agente, enpresa eta erakunde pribatuen kopurua handitzea. 3.3.2. Hitzarmen kolektiboetan, enpresa itunetan edota funtzio publikoaren arloko akordioetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa sartzen duten enpresen eta erakunde publikoen kopurua areagotzea. 3.3.4. Berdintasunera bideratutako aldaketarako gogoeta- eta eragin-guneetan parte hartzen duten erakundeen eta enpresen kopurua handitzea. 4.1.1 Emakumeen jarduera- eta okupazio-tasa handitzea, kalitatezko lanpostuetan parte hartuz. 4.1.2 Enplegua eta autoenplegua sustatzen duten emakumeen kopurua handitzea. 4.1.3 Emakumeek sustatutako enpresa-proiektu finkatu, lehiakor eta nazioartekoen kopurua handitzea. 4.1.4 Eremu akademiko, zientifiko, teknologiko, ekonomiko eta finantzarioetan emakume ikerlarien kopurua handitzea, eta sektore aurreratuetan eta teknologiak gehien erabiltzen dituztenetan emakume langileen kopurua handitzea. 4.1.5 Zainketarekin lotutako enplegu-sorguneak erabat garatzea, sektore horretan kalitatezko enplegua sortuz. 4.1.6 Prekarietate-baldintza berezietan gauzatzen diren lan feminizatuen lan-baldintzak eta gizarte-estaldura hobetzea; besteak beste, zainketako lan ordainduetan eta lehenengo sektorean egiten direnetan. 4.1.8 Emakumeen eta gizonen batez besteko urteko soldata gordinen arteko aldea txikitzea, batez ere alde handiena duten sektoreetan. 4.1.10 Lantokietan sustapen profesionala izaten duten emakumeen ehunekoa handitzea, jakinarazitako prozesu gardenen bidez.
5. PROGRAMA: ZAINKETEN EKONOMIA FEMINISTA.	5.1. Zainketa bizitzaren jasangarritasunerako ezinbesteko baldintza dela sozialki onartzea.	5.1.4 Eztabaida publikoa sustatzea, zertarako eta, gaur egungo eredu ekonomikoaren bidez, bizitzaren jasangarritasunean oinarritutako garapen-eredu bat bultzatzeko.

5.3. Zaintzen antolakuntza sozial berri bat babestea, horien gaineko ardurak birbanatzeko.

5.3.6 Zaintzako erantzunkidetasuna handitzea sektore pribatuko enpreetan.

5.3.10 Bateratze erantzunkidea eta pertsonen autonomia erraztuko duten hirigintza-plangintzako eta etxebizitzaren, gune publikoen eta garraiobide jasagarrien diseinuko irizpideak aplikatzea.

III. ARDATZA: Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak lortzeko Programak eta Helburuak³

6. PROGRAMA: SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA.

6.1. Indarkeria estrukturala eta kulturala murriztea.

6.1.1 Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde dauden eta hori sustatzen duten pertsonak gero eta gehiago izatea, batik bat adingabeek arduratzen direnak, edo adingabeentzako eredu direnak.
6.1.4 Desberdinkeria eta emakumeen aurkako indarkeriaren arteko harremana agerrarazten duten programa eta jardueretan parte hartzen duten pertsonen kopurua handitzea –batik bat mutil eta gizonena–, baita prebenitzen laguntzen dutenena eta indarkeriarik gabeko gatazken konponbidea sustatzen dutenena ere.

7.2. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta integrala bermatzea, ahalduzaren ikuspegitik, esku-hartze horretan nazioarteko estandarrekin bat eginez.

7.2.3 Beren lantokian sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurkako prebentzio- eta laguntza-protokoloen estaldura duten pertsonen kopurua areagotzea.

³ Erakunde guztien eskumenekoak diren helburuak nabarmentzen dira, baita Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren eskumen espezifikoak diren helburuak ere.



Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak hauek aukeratu ditu berdintasunaren alorreko lehentasun sektorial, XI. legealdirako:

- **Genero-ikuskera txertatzea berrikuntza- eta ikerketa-estrategietan, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasunaren eta Elikagaien Kalitate eta Industrien alorretan.**
- **Generoa kudeaketa aurreratuan sartzea eta enpresa-kultura eta -praktikaren eraldaketaren ikuspegia berdintasunerantz bideratu.**
- **Emakume Nekazarien Estatutua inplimentatzea.**
- **Emakumeen parte-hartzea handitzea nekazaritzako eta garraio-sektoreko erabakiak hartzeko lekuetan.**



3

SAILAREN
ESTRATEGIKOA

PLANGINTZA

3.1. DIAGNOSTIKOAREN DATU GARRANTZITSUAK

3.1.1. GOBERNU ONA

2017ko berdintasun-jarduketan jarraipenaren ebaluaziotik datoz datuak, sailaren prestakuntzari dagokion datua izan ezik: 2016ko abenduan langileek zituzten berdintasun-ezagutzak erakusten baitu azken horrek.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak Gobernu Onarekin duen konpromisoa diagnostikatzeko, atal horren programa bakoitza osatzen duten neurriak aztertu dira.

I. PROGRAMA: KONPROMISO POLITIKOA

Alderdi garrantzitsuak

- Gaur egun, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak berdintasunaren inguruko arau espezifikoa dauka. 8/2015 Legea, urriaren 15ekoa, Emakume Nekazarien Estatutuarena Bi legealdiko lan luzearen emaitza da arau hori.

- 2017an, berdintasun-politiketan baliatutako aurrekontua 713.343 euro izan zen, beraz, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren aurrekontuaren aurrekontu osoaren % 0,45.

ARDATZA	JARDUERA	EKINTZA	EUROAK
GOBERNAMENDUA	G2.3.	BAU Saila	57.849
	G5.2.	HAE Eren berdintasun-prestakuntza	3.208
BALIOAK ALDATZEA ETA EMAKUMEAK AHALDUNTZEA	1. programa Balioak aldatzea		401.745
	2. programa - Ahalduntze pertsonala laguntzea		54.191
	3. programa - Ahalduntze kolektiboa laguntzea		
	Emakumeen enplegua sustatzea		951494
	4. programa Ahalduntze soziala eta politikoa laguntzea.		
GIZARTE- ANTOLAKUNTZA ERANTZUKIDEA	Emakumeek nekazaritzako, arrantzako elikagai-sektoreko eta errepide bidezko garraioko elkarteen erabakimen-organoetan parte hartzea sustatzea.		496.588
	2. programa - Kontziliazio edo bateratze erantzukidea		
	Bizi-kalitatea landa-eremuetan hobetzea		1.658.377
Berdintasunean gastatutako guztia			3.713.343 oker edo hutsik ezean.
			% 0,45
Sailaren aurrekontua			824.411.277



- Sailak berdintasunaren alde egindako plangintzari dagokionez, nabarmendu behar da orain arte legealdiko hiru plan onartu direla eta urteko bederatzi plan.

Gaur egun sailari atxikitako zortzi erakundeetatik lauak berdintasunerako plan bat dute. Eusko Tren, Eusko Tren Sarea, Euskal Kirol Portua eta SPRI taldea. Beste lauak, Energiaren Euskal Erakundea, Elika, Neiker eta HAZI fundazioa, plana egiteko prozesuan daude.

- Berdintasunerako administrazio-unitateak sortu eta indartze aldera, sailak berdintasunerako teknikaria dauka. Sailari atxikitako erakunde publikoek ez daukate berdintasunean espezializatutako unitate/teknikari propiorik.

II. PROGRAMA: BERDINTASUNERAKO TREBAKUNTZA.

Alderdi garrantzitsuak

- Sailean lanean hasten diren pertsonen ongietorri mezua jasotzen dute, zeinetan berdintasun-ataria (sailaren intraneta) aurkezten zaien, bertan baitaude 4/2005 Legearen arabera lan egiteko prestakuntza-baliabideak. Ongietorrian berdintasunaren inguruko prestakuntzari eta/edo ezagutzei buruzko galdera-sorta azaltzen da.

Sailak prestakuntzari buruzko ekintza positiboa dauka. Emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko ikastaroak ez dira konputatzen administrazioak urteko prestakuntzarako emandako urteko ordu gisa.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegitura Saileko langileen berdintasunaren formakuntza eta ezagutza 2016ko abenduan				
Saila Edp Sailburuordetza	Zuzendaritza	Pertsonen Kopurua	Formazioa duten pertsonak	Ezagutza duten pertsonak
Sailburua	Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza	8	1	2
	Zerbitzu Zuzendaritza	49	7	6
	Arabako Lurralde Ordezkaritza	33	3	4
	Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza	66	3	8
	Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza	63	5	7
Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetza	Teknologia eta Estrategia Zuzendaritza	17	2	5
	Ekintzailetzaren, Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen Zuzendaritza	7	1	0
Industria Sailburuordetza	Industria Garatzeko Zuzendaritza	10	3	3
	Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza	20	3	1
	Nazioartekotzaren Zuzendaritza	14	4	3
Nekazaritzako, Arrantzarako eta Elikagai Politikarako Sailburuordetza	Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politikarako Zuzendaritza	1	3	4
	Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza	40	4	3
	Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza	39	2	4
	Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza	38	3	10
Azpiegitua eta Garraio Sailburuordetza	Garraio Plangintzaren Zuzendaritza	5	1	0
	Garraio Azpiegituren Zuzendaritza	16	3	10
	Barrio eta Hiri Gaietako Zuzendaritza	40	1	4

2017an, hamahiru emakumek eta bi gizonen –saileko teknikariak eta administrazio-langileak– HAEK eskaintako hamasei berdintasun-ikastaro egin dituzte (batek bi ikastaro egin ditu).

III. PROGRAMA: GENERO-IKUSPEGIA LAN-PROZEDURETAN.

Alderdi garrantzitsuak

- 2017an berdintasuna ebaluatzeko jasotako informazioaren arabera, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren hogeita zortzi estatistika ofizialetako zortzi baino ez dira generoari buruz. Denetan banakatzen dira datuak sexuaren arabera.

Sailak lau urtean behin egiten du landa-eremuko emakumeen egoerari buruzko azterlan bat: 2016an egin zen azkena. Saileko webgunean argitaratzen dira. 2017an, estatutuaren jarraipenerako batzordea eratzean, EAEko emakume nekazarien inguruko azterlana egin zen.

- Enplegu publikora sartu eta bertan mailaz igotzeko hautaketa-prozesuetan berdintasunarekin lotutako edukiak txertatzeari dagokionez, nabarmendu behar da Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak duela, Eusko Jaurlaritzaren barruan, enplegu publikora iristeko hautaketa-prozesuen eskumena. Sailaren ardura hauetara mugatzen da: barne-promozioko prozesuak, zerbitzu-eginkizunen horniketa eta izendapen askeko postuak. Sailak proposatutako ebaluazio-batzorderik gehienek emakume eta gizonen ordezkartza orekatua daukate.

Azpimarratu behar da saileko plantilla berriztatu dela, hots, urtero % 10, baina iaz hazi egin zen, administrazioako langileen lekualdatze-lehiaketa egin zelako.

- Komunikaziora berdintasuna batzeko, azpimarratu behar da webguneek hizkuntza inklusiboa erabiltzen dutela eta tratua berdinzalea dela irudietan. Sailari buruzko albisteak hedatzeko modua hobe daiteke; batez ere, EHAAn argitaratutako ebazpenetan.

- 2017an, sailak landutako araudiaren gaineko genero-inpakturi buruzko zazpi txosten egin dira, lauk genero-inpaktu positiboa izango lukete, eta beste hirurek ez dute inpakturik, ez baitagozkio generoari.

Urtero, berdintasuneko administrazio-unitateak txosten bat egiten du laguntzak Berdintasunaren Legeari eta, hala badagokio, Emakume Nekazarien Estatutuari egokitzen zaizkion aztertzeko. Txostena zuzendaritzei eta aholkularitza juridikori igortzen zaie.

- Sailaren aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeari dagokionez, berriz, nabarmendu behar da azken ekitaldian, 2018ko aurrekontuetan, aurrekontu-programa guztietan egin dela generoaren araberako inpaktuaren alde aurreko balioespenaren analisia.

- Genero-ikuspegia sailean 2017ko abenduan indarrean dauden plan sektorial eta transbertsaleetara batzeari dagokionez, esan behar da hogeita hiru plan daudela. Horietatik hogeita bitak generoak badu zerikusirik, baina generoak daukan garrantzia desberdina da kasu bakoitzean.

% 4.5ek badu berdintasuneko diagnostikoa

% 22k baditu berdintasunerako helburuak eta neurriak

Ez daukate genero-adierazlerik ebaluazioan.

Ez da jakiten ea berdintasun-aditurik dagoen txosten-egileen artean.



- Kontratueta, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak txertatzeari buruz:

2017an sailak egindako kontratazio guztietan sartu dira berdintasunerako klausulak; batez ere, kontratua gauzatzeko baldintza bereziei buruzkoak.

Dirulaguntzak:

- Industriako Sailburuordetzak eta Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetzak egindako 18 dirulaguntza-deialdietatik % 66k berdintasun-klausulak dituzte, balorazio-prozesuei buruzkoak batez ere.
- Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzak egindako laguntza-deialdietatik % 36k berdintasun-klausulak dituzte, balorazio-prozesuei buruzkoak batez ere.
- Azpiegitura eta Garraio Sailburuordetzaren laguntza-deialdietatik, % 25ek berdintasun-klausulak dituzte, balorazio-prozesuei buruzkoak batez ere.

Izendun edo zuzeneko dirulaguntzetatik % 90ek Berdintasunaren Legearen 2.3 artikulua betebeharrak sartzen dituzte erakunde jasotzaileen betearazte-baldintzen edo betebeharren artean.

Funtsean, sailak sinatutako hitzarmenen gaia ez da generoari buruzkoa.

IV. PROGRAMA: KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA.

Alderdi garrantzitsuak

Sailak berdintasunaren aldeko lantalde bat dauka eta bertan sailari atxikitako zuzendaritza eta erakunde publiko guztiek parte hartzen dute.

Emakume Nekazarien Estatutua inplementatzeko, jarraipen-batzordea eratu da, non sailak, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak ordezkaturik, Zerbitzu Zuzendaritzako aholkularitza juridikoarekin eta berdintasun-aholkularitzarekin, HAZIk, hiru aldundiek, Landa-eremuko batzordeak eta EHNEk parte hartzen duten.

V. PROGRAMA: PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA.

Alderdi garrantzitsuak

Sailari atxikitako kide anitzeko 17 organo zeuden indarrean 2017ko abenduan. Organo horietatik bakarrik dauka gizon eta emakumeen ordezkaritza orekatuari buruzko klausula bat.

2017an, sailak Joxe Mari Korta saria baino ez zuen eman. Epaimahaiak ordezkaritza paritarioa eduki zuen.

Landa-eremuko Emakumeen batzordea aipatu behar da; lantalde horretan, honako hauek dira parte hartzen dutenak: Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza, HAZI, aldundiak, Emakunde eta landa-eremuko emakume-talde batzuk. Sailaren berdintasuneko unitatearen aholkularitza dauka.

3.1.2. BERDINTASUN GAIETAN ESKU HARTZEKO ARDATZEN DIAGNOSTIKO SEKTORIALA.

Epigrafe honek emakumeek eta gizonek Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren eskumeneko eremuetan duten egoera laburbiltzen du.

TEKNOLOGIA, BERRIKUNTZA ETA LEHIAKORTASUNAREN AZPIEREMUA

Alderdi garrantzitsuak

B+Gko lan-merkatuan emakumeek eta gizonek duten presentzia desberdina da. Eustat-en azken estatistikaren arabera, 2016an, alor eta sektore guztietako B+Gn lanean ari diren langileen % 37,3 emakumeak ziren, hau da, 6.414 emakume.

Administrazio publikoa eta goi-mailako irakaskuntzaN, gizon eta emakumeen presentzia antzekoa da bai arduraldi osoan (DOB) eta bai beste modalitate batzuetan.

Enpresetan eta irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuetan (IAGEP), emakumeen ehunekoa % 37 da, hau da, txikiagoa, eta DOBen lan egiten duten emakumeak % 29 dira, hots, are gutxiago.

EAEn, B+Gn ari diren langile guztiak eta DOBekoak sektoreka eta okupazioaren eta sexuaren arabera. 2016								
	Emak.,guztira		Ikertzaileak		Teknikariak		Laguntzaileak	
	Emak. %	E % DOB	Emak. %	Emakumeen % DOB	Emak. %	E. % DOB	Emak. %	E % DOB
Enpresak eta IAGEP	% 37,3	% 29	% 29,68	% 29,44	% 36,3	% 26,5	% 46,2	% 35,6
Administrazio Publikoa	% 59	% 55	% 46,5	% 40,7	% 69	% 71,5	% 56,2	% 56,7
Goi-mailako irakaskuntza	% 49,4	% 50	% 46,3	47,8	% 50	% 52,5	% 76,1	% 75,6

BUAk egina Iturria: EUSTAT

Goi-mailako teknologiaren sektorean ere, oinarri teknologiko sendoa duten jarduerak dira, ezagutzak azkar berritzen dituztenak, B+Gn lan egiten duten emakumeak plantillen % 30 dira eta ikertzaileen % 31.

Industriari lotutako B+Gn lanean ari diren emakumeak % 19,9ra iristen dira eta emakume ikertzaileak, berriz, % 21era. Goi-mailako teknologiko zerbitzuen sektorean, emakumeak % 36,8 dira eta ikertzaileen % 35.

Soldata-arrakala. Soldata-egituraren Inkestaren datuak baino ez ditugu: langile bakoitzak urtean irabazten duena lan-talde nagusiaren arabera. 2015, estaturako.

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
A. Zuzendari eta gerenteak	51.645,86	44.992,93	55.327,33
C. Beste teknikari eta profesionalak	36.287,87	32.526,81	39.476,36
B. Teknikari eta profesionalak	29.669,62	28.540,05	32.451,97
D. Teknikariak: laguntza emateko profesionalak	28.943,22	25.475,37	31.548,13

ZTBESko zentro teknologikoetako patronatuetan, emakumeak % 15 dira.

Azken hiru urteetan, ikerkuntzan genero-ikuspegia txertatzeko proposamenak ari dira sortzen. Emakume zientzialariak ikusarazteko, ikerketen, zientzia-erakundeen eta euren funtzionamenduaren genero-alborapenei buruzko azterlanak egin dira. Lan-proposamen ez-sexistak egin dira ikerketa-taldeentzat.

Erronka: Industriako B+Gn emakume gehiago egotea sustatzea.

Erronka: Genero-ikuspegia Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean txertatzea, genero-ikuspegia duten taldeko ikerketa- eta lan-azterlanak eta proposamenak ezagutaraziz..

INDUSTRIAKO AZPIEREMUA

Alderdi garrantzitsuak

Industrian emakume gutxi daude. 2016ko datuen arabera, industrian lan egiten dutenen % 19,84 dira emakumeak.

Makinak eta ekipoak, Metalurgia eta produktu metalikoak, Kautxua eta plastikoak eta Erauzketa-industriak: emakume gutxiago diharduten jarduerak dira. Produktu farmazeutikoak, Ehungintza, Joskintza eta larrugintza dira emakume langile gehien duten sektoreak.



» EAEko industrian dihardutenak sexu eta jardueraren arabera (A38)2016	Emakumeak	Emakumeen %
Industria guztira	7.085	17,46
Industria-sektoreak		
2. Erauzketa-industriak	3	% 3,8
4. Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza	169	% 55,59
5. Egurra, papera eta arte grafikoak	311	% 19,58
7. Industria kimikoa	241	% 24,7
8. Farmazia-produktuak	111	% 72
9. Kautxua eta plastikoak	711	% 10,6
10. Metalurgia eta metalezko produktuak	1.772	% 13,26
11. Produktu informatikoak eta elektronikoak	89	% 32,6
12. Material eta ekipamendu elektrikoa	470	% 32,3
13. Makineria eta ekipamendua	268	% 12,9
14. Garraioetarako materiala	972	% 15,2
15. Altzariak eta bestelako manufaktura-industriak	361	% 21
16. Energia elektrikoa, gasa eta baporea	42	% 17,7
17. Ur-hornidura eta saneamendua	273	% 22,48

Soldata-arrakala INEko soldata-egituraren gaineko inkestaren arabera, manufaktura-industrian 2016an emakumeek 6.128,86 € gutxiago irabazten zuten gizonek baino.

EAEEn, enplegatuen % 20 soilik dago enplegatuta 250 langile baino gehiago duten enpresetan, beraz, horietan bakarrik daude behartuta berdintasun-plana izatera. Ez daukagu daturik berdintasun-panak dituzten ETEei buruz.

EAEko establezimenduen eta enplegatuen demografia, enplegatuen estratuaren arabera. 2017/01/01			
Enpresen tamaina		Langileak, guztira	Langileen %
Mikroetea	<10	3.688	% 18,3
ETeA	11- 50	6.676	% 33,1
Ertaina	51- 249	7.467	% 37
Enpresa handia	➤ 250	4.179	% 20

BUAk egina Iturria: EUSTAT

2013an, antolakunde batzuk, LANE, NBE Emakumeak, NBGP, Latinoamerikarako Batzorde Ekonomikoa (CEPAL) eta Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundea (FAO), lanean ibili dira gai honetan: erantzunkidetasuna enpresetan eta gurasotasunean. <http://www.wim-network.org/2014/01/con-prisa-y-sin-pausa-la-igualdad-de-genero-en-el-mundo-del-trabajo/#more-10298>. LANE eta NBGPk "Zaintza partekatua: gurasotasun-proposamenerantz" eskualde azterlana aurkeztu zuten.

Arestian, Gipuzkoako Foru Aldundiak enpresetako kontziliazioari buruzko proiektuei eta esperientziei ekin die Etorkizuna Eraikiz Gunearen baitan.



NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKAGAI-POLITIKAREN AZPIEREMUA

ARRANTZA

Arrantzan emakume gutxi dira eta enplegu espezializatueta daude. Sektorearen % 1,7 ozta-ozta. Ehunekoa poliki-poliki hazten ari da

Arrantza-lanaz gain, Arrantza eta Akuikulturako Plan Estrategikoaren arabera, 7.000 pertsona inguru lehorrean ari dira lanean portuetako azpiegituretan. Datuak ez dira banandu esparru horretarako, zeinetara transformazio- eta zerbitzu-enpresen langileak batu diren.

Planaren arabera, EAEko arrantza-sektoreko emakume langileak (guztira, 90) honako kategoria hauetan sailkatzen dira: fardo-makinetakoak, saregileak edo neskatilak. Horrez gain, hiru emakume itsaskilari daude, bederatzi gizonekin batera.

Bada itsas arrantzako lanbide heziketa, zeinetan neskak ikasten ari diren. Lanbideko laneratze-estatistikek informazio gehiago eman dezakete.

Arrantzontzien eskifaia 2.027 pertsona da. 36 emakume eta 1941 gizon

Ogasun Ministerioko Azterlan Teknikoen Taldeak eginiko Soldata-arrakala eta kristalezko sabaia izeneko txostenaren arabera, nekazaritzan, abeltzaintzan, basogintzan eta arrantzan, soldata-arrakalaren urkila % 2tik 90ra artekoa da.

Iturria: Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa. Langileen afiliazioa eta alta

2018ko ekainean, Araban izan ezik, gizon- eta emakume-kopuru antzekoa afiliatzen da SETAn; emakumeak % 45 dira, hots, 2014an baino hiru puntu gehiago. Araubide orokorrean gizonak gehiengoak dira, afiliatuen % 88 dira.



Datu gutxi dugu emakumeek sektorearen erabakimen-eremuetan duten presentziari buruz. Sailak zientzia-organismo bati ematen dizkio laguntzak, lau ekoizle-erakunderi, profesionalen bederatzi erakunderi eta hamahiru arrantzale-kofradiari. Gipuzkoako Ekoizleen Erakundearen (OPEGI) gerentea emakume bat da eta, aldi berean, Gipuzkoako Arrantzaleen Kofradien Federazioaren idazkaria da. Horrez gain, Ondarroako bi emakume ontzi-jabe, bileretara doaz euren ontzien ordezkartzan eta gerenteak dira; aldiz, 178 gizon ontzi-jabe daude.

Sektoreko emakumeak honako elkarteetan batzen dira: Bermeoko Neskabila eta Saregin Autonomoen Elkarte, Ondarruko Neskabilen Elkarte eta Saregin eta Kai Neskatileen Euskadiko Elkarte. Hiru elkarteok Itsas Emakume Langileen Federazioan batu dira, 2014ko martxoaren 24an sortua. Guztira, euskal arrantza-sektoreko 90 emakume langile inguru biltzen ditu, portu hauetan dihardutenak: Bermeo, Lekeitio, Ondarroa, Getaria, Orio eta Hondarribia.

AZPIEGITUREN ETA GARRAIOAREN-AZPIEREMUA

ALDERDI AIPAGARRIAK

Atal honetan, gizon eta emakumeak bi esanguretan hartzen ditugu kontuan: garraio-sektoreko langile gisa eta garraioen erabiltzaile gisa.

Sektorean enplegatutako pertsonen % 80,4 gizonak dira eta % 19,6, emakumeak, Euskadiko Garraio Behatokiaren (OTEUS) datuen arabera.

Pertsonak, garraioaren erabiltzaile gisa.

Lanegunetan, antzera erabiltzen dituzte garraioak emakumeek eta gizonak. Zioak, ordea, desberdinak dira, genero-rolak kontuan izanda. Gizonak joan-etorri gutxiago egiten dituzte etxeko erosketak egiteko, laguntza emateko edo konpainia egiteko. Emakumeek joan-etorri gutxiago egiten dituzte aisia- edo lan-kontuengatik.

Erabilitako garraiobideak ere desberdinak dira. Gizonak oinez edo autoz doaz gehienbat. Emakumeek ibilbideen laurden batean baino pixka bat gehitxoago erabiltzen dute autoa eta oinez ibilbideen % 52 egiten dute, gainerakoan, garraio publikoan.

Taula 34. Joan-etorrien banaketa garraiobidearen eta sexuaren arabera. (%).

Garraiobide	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
Oinez	42,1	52,0	47,0
Bizikleta	3,0	1,4	2,2
Autoa	42,2	28,2	35,2
Motozikleta	2,1	0,3	1,2
Lineaz kanpoko autobusa	1,5	1,4	1,5
Urbanoa eta herriarteko autobusa	3,8	8,3	6,0
Trenbidea	4,4	7,1	5,8
Multimodala	0,7	1,0	0,9
Bestelakoak	0,1	0,2	0,2
Guztira	100	100	100

Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.

Soldata-arrakala INEk soldata-egiturari buruz eginiko prentsa-oharrean, urtean emakumeek 1.834 € gutxiago irabazten dute gizonak baino garraio-sektorean.

Garraio-sektorearen erabakimen-eremuetara heltzea. Zazpi erakunde profesionaletik batek baino ez dauka emakumerik zuzendaritza-organoetan.

Garraio-sektoreko enpresa eta azpiegituren erakuntzako enpresa garrantzitsu batzuk emakume eta gizonen berdintasunerako erakundearen laguntzaileak dira.



3.2. EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILAREN BERDINTASUN- HELBURU ESTRATEGIKOAK XI. LEGEALDIRAKO

BERDINTASUNAREN ALORREAN ESKU HARTZEKO ARDATZAK																				
EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILAK BERDINTASUNAREN ALORREAN DITUEN HELBURU ESTRATEGIKOAK		Arduraduna	Kronograma				Bateragarritasuna VII. Planarekin													
							GOBERNU ONA					1. ARDATZA		2. ARDATZA			3. ARDATZA			
			2018	2019	2020	2021	P.1	P.2	P.3	P.4	P.5	P.1	P.2	P.3	P.4	P.5	P.6	P.7	P.8	
GOBERNU ONAREN LEHENTASUNEZKO HELBURUAK	► Berdintasunerako unitate administratiboak indartzea. GO.4	Zerbitzuen Zuzendaritza	X	X	X	X	☒	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐
	► Saileko pertsonal guztiari, teknikari zein politikari, prestakuntza eskaintzea GO.5	Zerbitzuen Zuzendaritza	X	X	X	X	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
	► Sailetik sortutako arauak berdintasun-printzipioa txerta dezatela. GO.9	Zuzendaritza guztiak	X	X	X	X	☐	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☒	☐	☐
	► Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea. GO.10	Zuzendaritza guztiak	X	X	X	X	☐	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐
	► Genero-ikuspegia sartzea plan sektorialetan eta transbertsaletan. GO.11	Zuzendaritza guztiak	X	X	X	X	☐	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
GOB. ON	► Komunikazioan berdintasuna txertatzea GO.6	Kabineteko zuzendaritza guztiak	X	X	X	X	☐	☐	☒	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐



LEHENTASHELBURU SEKTORIALAK	► Genero-ikuspegia berrikuntza-eta ikerketa-estrategietan sartzea	Teknol. Zuz. eta Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza	X	X	X	X													
	► Generoa kudeaketa aurreratuan txertatzea eta enpresa-kultura eta -praktika berdintasunerantz eramateko ikuspegiarantz egitea.	Ekintzailatzaren, Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen Zuzendaritza	X	X	X	X												☒	
	► Emakume Nekazarien Estatutua inplementatzea	Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza, Landa eta Itsasertz. Garap. eta Europar Politiketako Zuzendaritza	X	X	X	X							☒	☒		☒			
	► Erabakiak hartzeko prozesuetan emakumeen parte-hartzea bultzatzea.	Nekazaritza eta Arrantza Sailburuordetza eta Garraio Plangintzaren Zuzendaritza	X	X	X	X							☒						
HELBURU SEKTORIALAK	► Emakumeak ahalduntzea	Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetza Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetza Kabinetearen Zuzendaritza	X	X	X	X							☒						
	► Gizarte-erakunde erantzunkidea landa- eta itsas-eremuetan bultzatzea	Landa eta Itsasertz. Garap. eta Europako Politiketako Zuzendaritza	X	X	X	X										☒			
	► Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak	Zerbitzuen Zuzendaritza	X	X	X	X												☒	

4 PLANA KUDEATZEKO EREDUA

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak ezartzen du zer esku-hartze ildo baliatu behar dituzten zuzendaritzek berdintasunaren arloan, XI. Legegintzaldian. Urte anitzeko dokumentu honetan helburu generiko eta estrategikoak aurreikusten dira, eta horiek orientatuko dituzte urteko plangintzan ondoren jasoko diren jarduerak, izaera operatibo eta zehatzagoarekin.

4.1. BERDINTASUNERAKO URTEKO PLANGINTZA

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak urtero diseinatuko du berdintasunaren aldeko jarduketaren plan bat. Esandako plan horretan, helburuak, ekintzak, kronograma (hiruhilekoa) eta esleitutako aurrekontua zehaztu beharko dira. Plan hori urtero ebaluatuko da, Emakundek ezarritako aplikazioaren bidez.

Prozesu hori estandarizatzeko, Excel formatuko plangintza-eredua egon badago, Berdintasunerako Sailen arteko Talde Teknikoak sortua.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren jarduketak emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde (2018-2019)							AURREKONTUA			Bateragarritasuna VII. Planarekin													
										GOBERNU ONA					1. ARD		2. ARD.		3. ARD.				
HELBURUA	JARDUKETA	ARDURADUNA	Kronograma 1. hiruhilekoa	Kronograma 2. hiruhilekoa	Kronograma 3. hiruhilekoa	BETETZE-MAILA	Eslaitua	Zerbitzua	Bestak	P.1	P.2	P.3	P.4	P.5	P.1	P.2	P.3	P.4	P.5	P.6	P.7	P.8	OHARRAK
1. HELBURU ESTRATEGIKOA	1.1 JARDUKETA																						
	1.2 JARDUKETA																						
2. HELBURU ESTRATEGIKOA	2.1 JARDUKETA																						



Halaber, plangintza osatzeko, sintesi-fitxa sortu da eta sailen arteko eta sailen baitako koordinazio-egituretan erabiliko da.

LABURPEN-FITXA, BERTITASUNERAKO URTEKO PLANARI BURUZKO INFORMAZIOA EMATEKO										
JARDUKETAK										
	Gobernu onerako		Emakumeen ahaldunderako		Ekonomiak eta gizarte-antolaketa eraldatzeko		Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak sustatzeko		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Estrategikoak										
Gainerakoak (ez-estrategikoak)										
GUZTIRA										
Ondorioak:										
	Abs.		%		DESKRIBAPENA					
Jardunbide egokien bankurako										
GUZTIRA										
	Abs.		%		Ondorioak:					
Esleitutako aurrekontuarekin:										
Zenbatetsitako aurrekontuarekin:										
Identifikatutako aurrekonturik gabe										
GUZTIRA										
Ekintzetara bideratutako urteko aurrekontua	Esleituta ☐€				Urteko aurrekontu osoaren gainera %:					
	Zenbatetsia ☐€				%					
Aurrekontu esleitua eta/edo zenbatetsia duten ekintzen tipologia:										
Berdintasuneko Unitatearen urteko aurrekontua	bai ☐ ez ☐€									
	Unitatearen aurrekontua bideratuko den ekintzen tipologia:									
PARTAIDETZA										
Urteko plana ezartzen parte hartzen duten erakundeak eta arloak										
SEGIMENDUA										
Urteko planaren segimendua egiteko aurreikusitako jarduerak										



KOMUNIKAZIOA

Urteko plana zabaltzeko eta/edo hari buruzko informazioa emateko aurreikusitako jarduerak

4.2. BERDINTASUNERAKO EGITURAK

Ondoren, Sailak berdintasun-politiken alorrean zer oinarritzko egituratan parte hartzen duen azalduko da modu eskematikoan, planaren esparruan betiere:

BULTZATZEKO EGITURAK

EMAKUNDE da EAEen berdintasun-politikak sustatzeaz, aholkularitza emateaz, plangintza egiteaz eta ebaluatzeaz arduratuko den den erakundea.

SAILAREN BERDINTASUNERAKO ADMINISTRAZIO-UNITATEA plana egikaritzeaz, haren segimendua egiteaz eta ebaluatzeaz arduratuko da, eta saileko organoei eta langileei aholkularitza eskainiko die

ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIO-EGITURAK

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ERAKUNDEARTEKO BATZORDEA Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta toki-erakundeek berdintasunaren alorrean egiten dituzten politikak eta programak koordinatzeaz arduratzen den organoa da; **erakundearteko talde tekniko bat** du, berdintasunean espezializatutako teknikariz osatuta

SAILARTEKO KOORDINAZIO-EGITURAK

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO SAILARTEKO BATZORDEA Eusko Jaurlaritzaren berdintasun-jarduerak koordinatzeko organoa da eta berdintasunaren arloan aditua den **Sailarteko talde teknikoaren** babesa du.

SAILAREN BARRUKO KOORDINAZIO-EGITURAK

SAILETAKO TALDE TEKNIKOAK

Berdintasuneko unitateek eurek gidatuta eta koordinatuta, haien helburua berdintasun-politikak modu efektiboan aplikatzen laguntzea da sailari atxikitako edo lotutako zuzendaritzetan, erakunde autonomoetan eta sozietate publikoetan; horretarako, informazioa eta laguntza jasoko dute berdintasun-politikak garatzeko prozesuaren fase bakoitzean.

4.3. SEGIMENDU-SISTEMA

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren segimendu-sistema oinarritzko erreminta izango da; haren bidez, Sailak XI. Legealdian egindako berdintasun-politikaren jardunak, lorpenak eta inpaktuak hausnartu ahal izango dira. Alde horretatik, emaitza positiboak izan dituzten jardunbideak eta kudeaketa-ereduak zein diren adieraziko du, baita hobetzeko beharra dutenak ere; aldi berean, hasieran aurreikusi gabeko jarduerak baina ezarpen-prozesuak aurrera egin ahala egokitzen jotakoak zein diren ere identifikatuko du. Azkenik, erabaki politikoak eta teknikoak hartzen laguntzeko, berdintasuna Sailaren erakunde-kulturan, jardunean eta esku-hartzean biltzen dela bermatzeko.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak onartutako konpromisoei **hiru segimendu mota** egitea dago aurreikusita:

- Lehenik eta behin, sailak eta haren organismo publikoek **urtero informazioa xehatua emango diote Emakunderi**, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana ebaluatzeko, erakunde publiko guztietarako apropos diseinatutako segimendu mekanizatua eta telematikoa egiteko sistemaren bidez: [Berdintasunerako Planaren ebaluazioa eta segimendua egiteko aplikazioa](#).

Segimendu horren emaitza urtero islatuko da **botere publikoen jardunari buruzko memoria batean**, Emakundek argitaratzen duen berdintasun-plana egikaritzuz. Txosten horiek emandako informazioa biltzen dute, eta EAEko administrazio publiko guztiaren jardueren analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa biltzen dute: [Politika publikoen ebaluazioa](#)

Horrez gain, informazioa biltzeko eta zabaltzeko beste sistema batzuk ere gaitu dira, EAEko administrazioek egindako jarduerekin lotuta: **Berdintasun-mapa eta jardunbide egokien bankua**

EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. planaren adierazle estrategikoen sistemaren jarraipena: VII. Planaren ebaluazioak berdintasun-politiken epe ertain-luzeko inpaktuaren ebaluazio bat egitea aurreikusten du sintesiko adierazle-sistema estrategiko baten bidez, zeina, batez ere, Genero-berdintasuneko Indizeak definituko baitu. Sailak, bere eskumenen arabera eta zerikusia duten gainerako erakunde publikoekin batera, laguntza emango du adierazle horien jarraipenean eta, batez ere, adierazleen

aurrerabidean. Horrek baterako lan koordinatua eskatzen du, berdintasunaren arloan aurrera egiteko Euskadiko bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean, genero-berdintasunari dagokionez, Europako lehen herrialdeen artean kokatzeko modua izan dezan.

- Bigarrenik, Sailak legealdiaren bi unetan informatu beharko du Emakundek koordinatzen duen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordearen bidez: **legegintzaldiko lehentasunak ezartzen erdibidean eta amaieran izandako segimendua**; horretarako diseinatutako txantiloien bidez eskumenak aintzat hartuta identifikatutakoak, alegia:

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILAK XI. LEGEGINTZARAKO DITUEN LEHENTASUNEN TARTEKO JARRAIPENA

Data:

LEHENTASUN ERKIDEAK GOBERNU ONERAKO	BERDINTASUNERAKO PLANGINTZA SARTzea				BETETZE-MAILA			AURREKONTU BETEARAZIA	INFORMAZIO OSAGARRIA
	2018	2019	2020	2021	BETEARAZIA	GAUZATZEN	BETEARAZI GABE		
		☐	☐	☐	☐	☐	☒		
	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	BAI ☐ EZ ☐ ZENBATEKOA:	
	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	BAI ☐ EZ ☐ ZENBATEKOA:	
AURREKONTUA GUZTIRA									



LEHENTASUN SEKTORIALAK	BERDINTASUNERAKO PLANGINTZA SARTZEA				BETETZE-MAILA			AURREKONTU BETEARAZIA	INFORMAZIO OSAGARRIA
	2018	2019	2020	2021	BETEARAZIA	GAUZATZEN	BETEARAZI GABE		
		☐	☐	☐	☐	☐	☐		
AURREKONTUA GUZTIRA									

- Azkenik, Sailak berak informazioa jasotzeko metodo soila eta arina aurreikusi du; haren bidez, **urteko dokumentu labur batean** Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren betetze-maila islatuko da. Esandako dokumentu horren bidez, Emakumeen eta Gizonen Sailarteko Batzordean urteko planaren egikaritze-maila adieraziko dute.

LABURPEN-FITXA, PLANAREN BETETZE-MAILARI BURUZKO SEGIMENDUARENA			
JARDUKETAK			
	Abs.	%	INFORMAZIO GARRANTZITSUA
Egikarituta			
Martxan			
Berriak			
Bertan behera			
GUZTIRA			
Aurrekontuarekin:			
AURREKONTUA			



Ekintzetara aurrekontua	bideratutako	urteko	Esleitura ☐€	Urteko aurrekontu osoaren gaineko ehunekoa:%
			Zenbatetsia ☐€	
			Aurrekontua beharretara egokituta dago: bai ☐ ez ☐	
Berdintasuneko aurrekontua	Unitatearen	urteko	Aurrekontua handitu egin da, aurreko urtekoarekiko: bai ☐ ez ☐€	
			bai ☐ ez ☐€	
			Aurrekontua beharretara egokituta dago: bai ☐ ez ☐	
Aurrekontua handitu egin da, aurreko urtekoarekiko: bai ☐ ez ☐€				
JARDUNBIDE EGOKIAK				
BALORAZIO KUALITATIBOA				
HOBETZEKO PROPOSAMENAK HURRENGO PLANGINTZARAKO				

4.4. KOMUNIKAZIO-SISTEMA

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren beste oinarrietako bat –diseinuaren, kudeaketaren, ezarpenaren eta ebaluazioaren fasean– Saileko langileen inplikazioa lortzea da, direla politiko, direla tekniko, sailaren barruko koordinazio bikain baten bidez. Era berean, garrantzitsua da gizarte-partaidetzarako prozesuak artikulatzea, emakumeen interesak defendatzen dituzten elkarten ehunari arreta berezia eskainita.

Alde horretatik, planak komunikazio ona beharko du **barruan zein kanpoan**, sailak, bere eskumen-esparruan, emakumeen eta gizonen berdintasun-politikak sustatzeko hartzen dituen konpromisoak sozializatzeko. Esandako komunikazio-plan horrek bi une garrantzitsu izango ditu egikaritzean: plana onartzeko faseko komunikazioa eta plana ezartzeko garaiko komunikazioa.

KOMUNIKAZIO-PLANA

HELBURU	Konpromisoei buruzko informazioa ematea eta gardentasuna erraztea
---------	---

1. PLANAREN ONARPENA

BARRUAN

Helburu espezifikoa	Sail osoari helburuak, ardurak eta lan-egutegia helaraztea, maila politikoan eta teknikoan plana legitimatzeko.
---------------------	---

Ekintzak

Arduraduna

► Plantilla osoari zirkular bat helaraztea, Zuzendaritza Kontseiluak egindako onarpenarekin eta planaren kopia erantsita.

Zerbitzuen Zuzendaritza

► Sailaren intranetean, berdintasun-atarian, argitaratzea

Zerbitzuen Zuzendaritza

► Plana Gobernantzara eta Autogobernura igortzea, Jakina atariaren bidez argitaratzeko.

Zerbitzuen Zuzendaritza

► Plana aurkezteko bilera bat egitea saileko berdintasun-egiturekin, direla politiko, direla tekniko.

Zerbitzuen Zuzendaritza

KANPOAN

Helburu espezifikoa	Herritarrei jakinaraztea berdintasunaren alorrean zer neurri ezarri nahi diren sailaren eskumen-esparruan, informazio-eskubidea bermatzeko eta berdintasunerako politiken jarraipena eta gizartearen inplikazioa bermatzeko.
---------------------	--

Ekintzak

Arduraduna

► Plana Sailaren webgunearen bidez zabaltzea

Zerbitzuen Zuzendaritza

2. EZARPENAREN SEGIMENDUA

BARRUAN

Helburu espezifikoa	Plangintzaren betetze-mailaren berri ematea, lorpen nagusiak nabarmenduta eta zuzendaritzek egindako lanari balioa emanda.
---------------------	--

Ekintzak

Arduraduna

► Bilera bat egitea urtearen amaieran saileko berdintasun-egiturekin, direla politiko, direla tekniko, memoria eta planaren betetze-maila aditzera emateko.

BAU

► Aldian-aldian ezarpenaren eta jardunbide egokien emaitzarik esanguratsuenei buruzko informazioa ematea.

BAU



► Sailaren langileei gogoraraztea Berdintasun-postontzia dagoela Berdintasun-atarian, intranetean, komunikazioa, sarbidea eta partaidetza bermatzeko.

Zerbitzuen Zuzendaritza

4.5. AURREKONTU-SISTEMA

Gogoratu behar da ezinbestekoa dela beharrezko diren bitartekoak edukitzea, plan hau ezarriko bada.

Alde horretatik, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 18ko 4/2005 Legeak** haxe dio **14. artikuluan**: «Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, **urtero, lege honetan jasotako eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan**».

Horrez gain, **administrazio autonomikoa eta foru-administrazioa ordezkatzan dituen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordeak** 2016ko uztailaren 21ean **adostu zuen poliki-poliki handitu beharko dela esandako administrazio horietan berdintasun-politiketara bideratutako aurrekontuen ehunekoa**.

Horrenbestez, bitarteko horiek modu xeheagoan ipini beharko dira urteko planetan, legealdi-plan hau haien bidez zehaztuko baita. Nolanahi ere, azpimarratzekoa da honela banatuko dela aurrekontua: batetik, berdintasunerako administrazio-unitate baterako partida espezifiko bat, eta, bestetik, urteko planetan aurreikusitako ekintzak ezartzeko aurrekontu propio bat.



**BERDINTASUNA
BULTZATZEN
DUEN
ADMINISTRAZIO
PUBLIKOA**